

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Kataluniako zinetako filmeen erdia katalanez

BALDIN ETA parlamentuak lege berriaren proposamena onartzen badu. Generalitateko hirukoak eta CiUk aurkeztuko dute Zinemaren Lege berria sei hilabete barru parlamentuan. Proposamenaren arabera, zine aretoetan filmeen erdiak, edo jatorrizko bertsiotan eta katalanez azpigitulatuak, edo katalanera bikoiztuta eskainiko dira. Ez da apustu makala. Kontrako asko ditu proposamenak. PP eta Ciudadans aurka agertu dira eta Kataluniako Zinemaren Enpresariaren Elkarteak ere segituan esan du negoziariko kaltegarria izan daitekeela. Proposamena ausarta da eta gaia konplexua. Urte asko dira katalanaren aldeko hainbat elkarte zine aretoetan katalana gehiago agertzeko ahaleginetan ari dela. Horietako bat da Plataforma per la Llengua.

Elkarteak bi munstro aurkitu ditu parean urte luzez: banatzaileak eta aretoen jabeak. Ahaleginak bai, baina errealitatea halakoa da: zine aretoetan filmeen %3 dira katalanez –bikoiztuak edo azpigitulatuak–. Aldiz, telefono mugikor, Internet, irrati, telebista, antzerki eta prentsaren alorrean katalanaren presentzia %26tik %50erakoa da. Badago aldea.

Plataforma per la Llenguentzat bezala, beste hainbat katalan eragileentzat albiste pozgarria izan da Generalitateko hirukoaren eta CiUren proposamena. Beste kontu bat da aurrera aterako den ala ez. Bestalde, eragile eta elkarteek DVDaren garrantzia azpimarratu dute. Gero eta gehiago kontsumitzen dira DVDak, eta hor ere, katalanaren presentzia hutsaren hurrengoa da.

Hautsak harrotu ditu proposamenak, batzuek pozez hartu dute eta besteek kezka. Dena dela, eta

Vilaweb aldizkari katalanak ederki azaldu duenez, filmeen hizkuntza kuotaren gaia Europako hainbat estaturen konpondu gabeko gaia da. Esan nahi baita, bi gerren artean diktaturak izan zituzten estatuetan, hala nola, Espainian eta Italian, jatorrizko bertsiolari bikoizketek hartu zieten gaina, estatuko hizkuntza babestu nahian.

Katalanak ez dira ohitu jatorrizko bertsiotan filmak ikustera, gaztelaniaz bai. Gure moduan.

Diru-laguntzak igo ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak

IAZKOAREKIN alderatuta igo egin ditu Euskara Zuzendaritzak euskararentzako laguntzak; %5,4koa da igoera, eta bereziki hedabideentzakoak hazi dira –iazkoa baino %8 gehiago–.

TALAIAN

Emakumeak greban?

Martxoaren 8an, beste behin ospatu zen emakume Langilearen Nazioarteko Eguna. Aldarrikapen eta festa ekitaldi ugari jantzi zuten egun hori Euskal Herrian eta mundu osoan. Diskriminazioaren kontrako eta berdintasunaren aldeko borroka izan dira guztien aldarrikapena. Zeren eta emakumeak diskriminaturik jarraitzen du gizartean, enpresetan eta familian bertan ere. Emakumeak desberdintasunaren ondorioak jasaten jarraitzen du gizartean: langabezia, prekarietatea, eta abar. Emakume izateagatik etxeko lanetara dago bazterturik familian, eta ez du horregatik inongo solda eta ezta gizarte laguntzarik jasotzen. Emakume izateagatik zailtasun gehiago dauka ardura politiko, ekonomiko eta sozialak dituzten lanpostuetara heltzeko.

Testuinguru horretan, ekimen originala eta interesgarria sortu du Emakunde: Emakumeak greban. Hurrengo hiru hilabeteetan hausnarke eta eztabaida sortu nahi du ekimenak. Zer pasako litzateke etxeko andreak greba egingo balute? Kontuan izan behar da etxeko lana –gehienean emakumeen bizkarrean dagoena–, Barne Produktu Gordinaren %32,8 izan litekeela. Horrelako greba batek ondorio katastrofikoak izango lituzke dudarik gabe, bai familientzat, baita gizartearentzat ere. Hala ere, larriena da emakume horien gehiengo ez legokeela prest horrelako greba bat egiteko, hainbeste mendeko matxismoak zamaturik baitaude. Eta gizonek ere, gehienez, ez lukete onartuko. Batzuek eta besteek kontzientziario handiagoa behar dugu. Eta horretarako aldaketa erradikala behar da, politikan, ekonomian, gizartean eta baita hezkuntzan ere. Aldaketak gizonen eta emakumeen arteko erabateko berdintasuna bermatu beharko luke. Emakunderen ekimenak, sindikalgintzako eta gizarteko beste erakunde askorenak bezala, horretan lagundu dezake.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Juan Martin Elexpuruk Iruña-Veleiaz emandako hitzaldiaren bideoak ikusi ditu Ricardo Gómezek (www.blogari.net/filoblogia): “Ezin izan dut bigarrenetik aurrera jarraitu. Bigarren bideo horren amaieran, 9:42 segunduan hasita, Elexpuruk esaten du idazkun batean ZUTIK irakurtzen dela, baina berehala gehitzen du benetan ZUTI irakurtzen dela, <K> ez delako ikusten eta pena aurpegia jartzen du falta horregatik; segidan, eskatzen du ea ostrakon horren argazkia ikus daitekeen, <K> dagoen ala ez ziurtatzeko. Nahikoa eta soberan izan dut bere analisiaren zehaztasunaz konturatzeko. Eta, orain, euskal filologoa izateko ohorezko CCC agiria eskuratu ahalko duzue galdera honi erantzunez gero: Zenbat oker egiten ditu Elexpuruk azken segundu horietan?”.

Jon Eskisabelek esanak *Berrian*: “Eta etorkizunari begira, galdetu ahal da ez ote den Junkera euskaldunon erreferentzia izango, demagun, Joseba Tapiaren kaltean...”.